



EKINTZA Fundazioa
Datu pertsonalen babesa

Familiei zuzendutako Datu Pertsonalen
Babesaren inguruko Informazioa eta Onespena

Edición: 2023/02/21
Revisión: 2020/01/16
Ref.: IKA-002
Versión: 1.0
Página 3 de 4

EKINTZAren datu pertsonalen pribatutasun- eta babes-politika: ikasleen eta familien datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko araudian ezarritakoa kontuan hartuz, EKINTZA Fundazioak, datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik (IFZ: G20087961, aurrerantzean "**EKINTZA**"), honako hau jakinarazten du:

1. Helburuak. EKINTZArekin duzuen harremanean ematen diren datu pertsonalak eta dokumentuak gure datu-tratamenduetan sartuko dira. Tratamendu horien helburua **hezkuntza-, psikopedagogia-, administrazio- eta antolaketa-zereginak kudeatzea**, **EKINTZAK antolatutako jarduerak sustatzea eta zabaltzea**, **legezko betebeharrak betetzea**, eta une bakoitzean indarrean dauden estatutuetatik, barne-arauditik eta funtzionamendu-irizpideetatik eratorzen diren gainerako xedeak betetzea da.
2. Osasunari buruzko datuak. EKINTZAren jarduerak behar bezala garatzeko eta ikasleen osasuna uneoro zaintzeko, beharrezkoa izan daiteke, kasu batzuetan, haien **osasunari buruzko informazioa kudeatzea** (medikazioa, intolerantziak, gaixotasunak, etab.).
3. Konfidentzialtasuna. Datu pertsonalen tratamendua behar bezalako konfidentzialtasunarekin egingo da, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.
4. Datuen komunikazioak. EKINTZAK familiei edo legezko ordezkariak jakinarazi ahal izango dizkie kalifikazio, portaera, intzidentzia, zigor, Ikastolako sarrera eta irteera eta jardueretan parte hartzei buruzko datu guztiak eta honez gain, hezkuntza-legerian, Ikastolaren barne-araudian eta une bakoitzean ikasleei eragiten dieten funtzionamendu-irizpide eta -printzipioetan ezarritako helburuak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren gainerako jardueri buruzko datuak. Gainera, datuen jakinarazpenak egin ahal izango zaizkie, hala badagokio, **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari, Euskal Herriko Unibertsitateari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Kirol Federazioei, Donostiako Udalarari, finantza-erakundeei eta EKINTZAKo aseguru-etxeei**, bai eta legez edo estatutuz ezarritako gainerako kasuetan ere, edo legez baimendutakoetan edo nahitaezkoetan. Gainera, txangoetan, joan-etorrietan, eskolaz kanpoko jardueretan eta antzeko jardueretan parte hartuz gero, kasu bakoitzean behar diren datuak **erakunde antolatzaileei eta koordinatzaileei** jakinaraziko zaizkie.
5. Modalitatea eta iraupena. Datu pertsonalen tratamendua **paperean nahiz informatika** bidez egin ahal izango da. Familiak EKINTZArekin duen harremana amaitu ondoren, **legezko araudiak kasu bakoitzean ezartzen duen epean** gordeko ditu datuak, eta, ondoren, **ezabatu egingo ditu**, konfidentzialtasuna bermatzeko **beharrezkoak diren segurtasun-neurriekin**.
6. Oinarri juridikoak. Honako hauek dira Pribatutasun Politika honetan deskribatutako datuen tratamenduak eta komunikazio posibleak legitimatzen dituzten **oinarri juridikoak**, datuak babesteari buruzko araudian ezarritakoaren arabera:
 - a) **datuak tratatzeko beharra**, EKINTZAren funtzioak eta jarduerak behar bezala gara daitezen (adibidez, hezkuntza-lanak egiteko),
 - b) EKINTZAri aplikatu dakizkiokkeen **legezko betebeharrak** betetzea (adibidez, ikasleen datuak Hezkuntza Sailari jakinarazteko),
 - c) EKINTZAren **interes legitimoa** (adibidez, Ikastolarekin zerikusia duten jardueri buruzko informazioa duten komunikazio elektronikoak bidaltzeko),
 - d) datuak tratatzeko **baimena** (adibidez, irudiak argitaratuz gero).
7. Dokumentu hau **EKINTZA Ikastolako ikasleei eta familiei dagozkien Datuak Babesteko Politika da**; beraz, ez da beharrezkoa izango horren berri ematea etorkizuneko jardueretan, non eta ez den aldaketarik edo lege-aldaketarik egiten. Datuak ematea eta ikaslea, familiakoa edo legezko tutorea izateak berekin dakar, nahitaez, berriazko baimena ematea datuak biltzeko, tratatzeko eta komunikatzeko, eta, hala badagokio, legez "kategoria berezietako" datutzat hartzen diren datuak (adibidez, osasun-datuak) barne hartzea, beharrezkoak direnean. Zure datuak tratatzeko baimena ematen ez baduzu edo ondoren kentzen baduzu, EKINTZAK ezin izango ditu bere eginkizunak bete zuri dagokizunean.



EKINTZA Fundazioa
Datu pertsonalen babesa

Familiei zuzendutako Datu Pertsonalen
Babesaren inguruko Informazioa eta Onespena

Edición: 2023/02/21
Revisión: 2020/01/16
Ref.: IKA-002
Versión: 1.0
Página 4 de 4

Datu espezifikoak tratatzeko baimenak. EKINTZAK ikasleei eta senideei jabetzeko eskatzen die, datuen babesari buruzko araudia zorrotz betetzea, batzuetan, bateraezina izan daitekeela ikasleek jarduera jakin batzuetan bere osotasunean parte hartzearekin. Hori dela eta, balora ezazue ondoren deskribatutako tratamenduren bat ez baimentzeak, kasu batzuetan, ekar lezakeela ikaslea taldetik kanpo uztea argazkiak egiteko unean, eta abar.

EKINTZAK esanbidezko adostasuna eskatzen dizu datuen tratamendu eta komunikazio hauetarako:

- a) Izena, posta-helbidea, helbide elektronikoa eta familia-telefonoei buruzko datuak **ikaslearen ikaskideei** emango zaizkie ikastaro bakoitzean.

BAI, TRATAMENDU HAU BAIMENTZEN DUT: EZ DUT BAIMENTZEN TRATAMENDU HAU:

- b) Ikaslearen izena, gurasoena, posta-helbidea eta helbide elektronikoa eta familia-telefonoak "HARIZTI" EKINTZA Ikastolako Ikasleen Gurasoen Elkarteari emango zaizkio.

BAI, TRATAMENDU HAU BAIMENTZEN DUT: EZ DUT BAIMENTZEN TRATAMENDU HAU:

- c) Parte hartzen duen jardueri buruzko datuak, hala nola, izena, ikastaroa, ikasgela, irudia (argazkia, bideoa) eta ahotsa **Ikastolaren argitalpenetan** (urtekarian, etab.), promozioaren **Orlan** eta **Ikastolan bertan jarri ahal izango dira ikusgai**.

BAI, TRATAMENDU HAU BAIMENTZEN DUT: EZ DUT BAIMENTZEN TRATAMENDU HAU:

- d) Parte hartzen duen jardueri buruzko datuak, hala nola, izena, ikastaroa, ikasgela, irudia (argazkia, bideoa) eta ahotsa EKINTZAren webgune ofizialean agertu ahal izango dira.

BAI, TRATAMENDU HAU BAIMENTZEN DUT: EZ DUT BAIMENTZEN TRATAMENDU HAU:

- a) Parte hartzen duen jardueri buruzko datuak, hala nola, izena, ikastaroa, ikasgela, irudia (argazkia, bideoa) eta ahotsa EKINTZAK Interneten aurkezten dituen argitalpenetan agertu ahal izango dira, Ikastolak sare sozialetan dituen kanal ofizialen bidez.

BAI, TRATAMENDU HAU BAIMENTZEN DUT: EZ DUT BAIMENTZEN TRATAMENDU HAU:

Eskubideak. **Datu pertsonalak babesteari buruzko eskubideak** erabil ditzakezu (irispidea, zuzenketa, tratamendua mugatzea, ezabatzea, aurka egitea, eramangarritasuna, etab.), eta gai honi buruzko beste edozein eskaera egin dezakezu EKINTZAri bideratuz, Tontorgoxo, 18, 20018 Donostia (Gipuzkoa), 943210307 telefono-zenbakira, edo ikastola@ekintza.eus helbide elektronikora, Zuzenbidean baliozko den dokumentu baten kopia bat erantsita. Horrez gain, EKINTZAko Datuen Babeserako ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke ekintza@dpobide.com helbide elektronikoa. Eskaeren ebazpenarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat aurkeztu nahi baduzu, kontrol-agintaritza honetara jo dezakezu: Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa: www.aepd.es

Dokumentu hau irakurri eta ulertu dut, eta EKINTZAko ordezkariari dokumentu honi buruz ditudan zalantzak galdetzeko aukera izan dut.

Donostian,koren(e)an

Izen-abizenak:

Izen-abizenak:

NAN.:

NAN.:

Sinadura

Sinadura: